


HAU →  ← HAU

euskaldunon konpartsaren aldizkaia

ZENTSURATUA

· I · N · A · U · T · E · R · I · A · K ·

Inauteriak, 4. eta 5. orrialdetan


gainera...

2 santo tomasak, ohitura zaharrak...

6 izan ez zirenak

7 euskara eta matxismoa

8 deialdiak!!!



Obitura zaharrez betetako herri bonetan, zein egun izan daiteke aproposagoa obiturak betetzeko, edo apurtzeko, Santo Tomas eguna baino. Udalak, urteko egun guztietan egiten duen moduan, dendarien eta dirudunen aginduak bete zituen. Horrela, Santo Tomas eguna egun bat lehenago ospatu zen, hau da, abenduaren 20an. Badakizue ez dago dirua baino Santu boteretsuagorik.

Hau Pittu Hau-k holako jaietan ezin du butsik egin, eta hor ipini genuen geraldia goizeko 11:30etan Madariaga Tabernan, txandan sartu aurretik eztarriak eta sabelak apur bat berotzeko asmotan.

Txandarena? Beste obitura zahar bat. Bilbon jaia baldin badago, konpartseroek beti pringatuko dute. Ezinbestekoa da. Eta txandaren ordutegia? Obitura zaharra berrir jarraituz, txanda lau aldiz mugitu ziguten orduz. Hori bai, gero eta beranduago ipiniz. Jaia ez da katxondeoa, hala? Ba gora katxondeoa, gora obitura zaharra!

Santo Tomasak, ohitura zaharren eguna

Beno, Madariagan geunden, eta ohiturak ez aldatzeko 5 konpartsakide baino ez. Non sartzen ote da konpartsa Aste Nagusitik kanpo? Zeren, lanean, konpartsakide bakarra geneukan. Bakoitzak azter dezala bere koartada, kar, kar, kar....

Konpartsakide efektiboen faltak ez gintuen ikaratu, ohitura den moduan ere, eta prestatuta genituen 50 litro zurrakapote edateari ekin genion. Bai,

50 litro 5-6 konpartsakideen artean, bilbotarrak gara edo zer? (beno ez genituen bukatu, baina hor ibili ginen jotasu!).

Eguerdia heldu zen, eta zerbait bazkaltzeko beharra sentitu genuen. Hor apurtu zen eguneko lehengo ohitura zaharra, eta talo ziztrin bat jan beharrean, Esperantzako frontoian ganoraz ipinitako babarrun batzuk bazkaldtu genituen. Hori bai, babarrunak

jan eta gero, ohitura den moduan, puzker bat baino gehiago nabarmendu (entzun edota usaindu) zen konpartsakideen artean.

Holan pasatu ziren Santo Tomaseko orduak, orain zurrakapote bat, orain sagardo bat, orain babarrun batzuk,... baina beti buruan arratsaldeko 20:00etan txanda genuela. Beraz, ezin desfasatu. Ohiturak apurtuz, beraien mozkorregandik ezaguna den konpar-

SANTO TOMASAK



tsakide bat, babarrunak jan ostean, etxera joan zen dutxa bat hartzera, txandan fresko, fresko sartzeko asmotan. Beste batzuk, berriz, Somerako tabernetan sartzetik ez zegoela ikusita, zurrakapote eta guzti sartu ziren Somerako arropa-denda batean. Bertan, jai partikularra antolatu zen Mari Jaiaren kanta eta guzti. Hor egon ginen azken urteotan egon den txupinerarik txupinosoenarekin.

Txandaren ordua hurbil zegoen, eta gu ere hurbildu ginen Bilboko Konpartsen txosnara. Han Kantabria-Kuba ONG-aren kide batzuekin egin genuen topo. Kuba eta Euskal Herria herri bera ez dela erakutsi eta gero, gure ordua heldu zen, txandara! Orduan miraria gertatu zen, hasierako 5 konpartsakide horiek bikoiztu eta hirukoiztu ziren (ez dakidan batek ogia eta arrainekin egin zuen moduan). Era berean 3 ordutako txanda erdibitu zen, eta ordu t'erdikoa bihurtu zen. Aste Nagusian 15 txanda egin zituen konpartsakide hura barratik kanpo gelditu zen lan egin barik; dutxatzera joan zen beste horrek ganoraz bete zuen txanda, eta harrigarriena... sekulan txandarik bete ez duen konpartsakide bat sagardo botilak irekitzen egon zen.

Escribar de Balagerren mirariak ez dira ezer hauekin alderatuta, eta jada Santua da.

Hori bai, txanda bukatu eta ohiko bizitzara itzuli ginen. Dutzatzera joan zen konpartsakide hura, txakoli botila



pare bat edan ostean, MCD-ren abeslariarekin batera bukatu zen eszenatokian (jode, mutil, zure urteak

noiz dira? Konpartsak karaoke bat oparitu nahi dizu), eta besteok Somerara abiatu ginen.

Egunaren laburpena konpartsakidez konpartsakide:

- Hau idazten duen konpartsakideak ez zuen ikusi ez kipularik, ez oilorik, ezta porru ziztrin bat ere ez. Beraz, nire aldetik nire ohitura partikularra bete nuen.
- Garaia eta zaratsua den beste hura, bai, bai, txapelarekin ibiltzen dena, Bilbin bukatu zen goizeko ordu txikiak arte, beste ohitura bat beteta.
- Athleticzale amorratua? Ba normala dena baino lasaiago ibili zen.
- Erosle konpultsiboa eta sagardo dastatzailea? Ohitura apurtuz, familia artean mozkortu ziren eroslearen ilobaren bataioan. Santo Tomasetatik agertu ere ez. Hori bai, zurrumurruek diote bietako batek jai familiar horretan Chiquito de la Calzadaren (ErrepidekoTxikia) imitazio ezin hobea egin zuela.
- Santo Tomas egunean lan egin behar zuena, ba Bilbon Santo Tomas larunbatean eta igandean ospatu zenez, berarentzako ere lana larunbatean eta igandean. Beraz, goiz joan behar.
- Txandalari eskakeatuta? Ba Mexikotik ekarrirako likoreen eta zurrakapotearen eraginez, K.O. bukatu zen, eta Kosta Rikarako trenbidea hartu zuen.
- MCD ren kide berriaz ez dakigu ezebeaz, galdetu DYA-an edo Udaltzainguan.
- Errondan pisu-franko erosi duena? Ba 2 edo 3 mozkorra harrapatu ostean, hurrengo egunean 25 litro zurrakapote bota behar izan zituen bere komun berritik behera.
- Kanpo-harremantako ministroa? Betiko moduan kanpo harremantako lanetan eta "San Ildefonso" umearen lana egiten.
- Lehendakaria, plana azaltzen bere koadrilari.

- Katuen laguna? Hori goizean goizetik jaitsi zen kipulak ikustera, ez bere lagunaren moduan.
- Txistularia? Ba txistua jotzen ibili zen, ea eskupekoa ematen diozuen laster baten umea eduki behar du eta.
- Eskoriatzakoa? Flipatuta hainbeste jende ikusita. Gero Indautxutarrarekin batera sagardo botilak irekitzen ibili zen.
- Guitowoman eta taldea? Argazkiak ateratzen txanda barruan. Itxura ona badute ere, txosna bat ez da "Zibeles Pasarela".

Eta hori izan zen dena, hurrengo Santo Tomasera arte. Hau da, 2004.eko abenduaren 21, edo 20 edo 19an, ohitura den moduan, BBKren aginduetara.

Lehiaketa: Zenbat aldi agertzen da "ohitura den moduan" esamoldea idatzi honetan?



INAUTERIAK

Aurten ere jaitsierarik gabe geratu ginen, eta nola ez, berriro Bilboko Udalarari esker. Inauteriak heldu aurretik, Antonio Basagoitiren deklarazioek giroa berotu zuten, eta jaitsiera egiteko

arazoak izango genituela aurreikusten hasi ginen. Baina gu beti jaiaren alde gaudenez, gure mozo-roak prestatzen paratu ginen. Aurten jaitsiera egin behar genuen, noski baietz!



2004_{ko} Inauteriak

Arraroa bada ere, zapaturako mozo-
rro guztiak prestatuta geneuzkan:
bideseinaleak, pintura-poteak,...
Sinestezina! Hau marka! Horrela, gauza
guztiak Indautxura eramateko egoitzan
geratu ginen arratsaldeko 4etan. Negu
gorriko arratsalde euritsua egokitu zen, baina
ilusioz eta pozaz beteta Indautxura abiatu
ginen. Bilbo osoari gure mozo-roak erakutsi
behar genizkion: bideseinaleak, pintura-
poteak, udaltzainak eta garbitzaileak.
Indautxun batu ginen guztiok, eta poteoari
ekin genion, nola ez! Ohikoa denez,
holakoetan motorrak berotu behar dira.

Bitartean, Erakustazokan jaitsieraren
etorkizuna erabakitzen ari zen. Udaleko
zinegotziak 4:30ak aldera ailegatu, eta Txori

Barrote konpartsa ezin zela atera esan
ziguten... Zer? Hasierako arazoa presoen
argazkiak zituen orga zen, baina konpartsa
oso bat zentsuratzea onartezina zen.
Kordinadorako bilera azkar batean erabaki
adostua hartu zen: Bilboko Konpartsen orga
maindre batez estali eta jaitsierara bidali
gainontzeko orgak azokan utziz. Konpartsa
bakoitzeko bi kidek joan behar zuen
adierazpen askatasunaren aldeko panfletoak
banatzen. Zinegotzietan erabakiaren berri
eman, eta jaitsiera bertan behera utzi zuten.
Zinegotziak prentsaren aurrean deklarazioak
egiten hasi zirenean, azokan zeuden
konpartseroak sutan jarri ziren eta oihuka
hasi ziren. Horrenbeste diru eta denbora
inbertitu eta gero... konpartsa guztien lana
zakarrontzira botata! Azkenean zinegotziak


azokatik atera ziren, konpartseroen oihuak
atzean utzita.

Azokaren berri txarrak berehala heldu
ziren Indautxura, baina honek ez zuen gure
jai giroa itzali.

Horregatik, 6retan gure mozo-roa eta
tramankulu guztiarekin Arriagako plazara
abiatu ginen jaiarekin jarraitzeko. 8retan
Arriaga plazan elkartzeko kontsigna zabaldu
zen konpartsen artean.

Bilbotar guztiak konpartsoak jaiaren aldeko
konpromezua daukagula erakutsi behar
genien. Arriagara musika zuen kamioi bat
ailegatu eta kriston giroa sortu zen: konfetti
gora, serpentina beheara, bideseinaleak
dantzatzeko eta pintura-poteak saltoka...

Ordubete egon ginen bertan. Desfile
txiki baten modukoa zen.



Arriagako jaia bukatu eta gero, egoitzara joan ginen gauza guztiak uztera. Orduan, gure bigarren mozorroa agertu zen: Hau Pittu Hau Martitzen. Hogeiren bat astronauta poteo herrikoia hasteko alde zaharrea sartu ginen. Tabernaz taberna, barrutik kalimotxoz eta garagardoz blai, zein baino zein mozkortuagoa. Ezta, Kike?

22:30etan afaltzera joan ginen: Gora Jade euskal txinoa! Ez dakigu, baina agian afaria ere boikoteatuta zegoen. Bestela, sukaldaria txinatarra izan beharrean, pepelerdokoa zen. Baina egia esateko, oso oso txarto afaldu genuen. Platerak berandu ateratzen ziren, batzuk ez ziren ateratzen, eta guk edan eta edan. Horrela agertu ziren gaueko lehenengo mozkorrak. Baten batek ez zuen bere afaria bukatu... (izenik ez dugu emango!).


1:30etan atera ginen kalera. ZORIONEZ!!!!

Beranduago, Martitzerako espedizio berezi hau Somerako tabernetan bi taldetan sakabanatu zen. Batzuk Bilbira joan ziren, eta besteak Kafe Batzokira.

Hor galdu genien pista...



Inauteri hauetan konpartsakide batzuek ligatu egin omen zuten. Egia ala gezurra? Batek daki!!!



Izan ez ziren Inauterien prestaketa



Badaude Inauteriak prestatzeko modu asko.

Nola prestatzen ditu Inauteriak mozorro-dendaren jabeak?... Ba mozorro gehiago prestatuz.

Nola prestatzen ditu Inauteriak ikastoletako umeak?... Ba bere ikasgela mozorrotuz.

Nola prestatzen dituzte Konpartseroek Inauteriak?... Ba egitaratua prestatuz, karrozak eginez, gairen bat pentsatuz, kritika soziala nola kaleratu behar den aurreikusiz...

Nola prestatzen dituzte inauteriak guztiok ezagutzen ditugun pertsona batzuek?... Ba aztertuz nola apurtu inauterien dinamika, hori da beraien prestaketa.

Tamalez, aurten ere eurek guk baino hobeto prestatu dituzte Inauteriak, eta mozorro guzti horiek, kritika sozial guzti horiek, erakutsi gabe gelditu dira.

Nork pentsa dezake hainbeste lan egin ostean Konpartsen nahia Inauteriak apurtzea dela? Hori dioenak izen bakarra du, GEZURTIA. Nork erabaki dezake zein mozorroa den egokia eta zein ez? Mesedez, gutxienez Frankoren garaian arauak argi zeuden:


erabateko debekua eta kitto! Baina, gaur egun, zer? Zer nolako inauteriak nahi dituzte? Argi eta garbi esan dezatela. Rio de Janeiro moduko inauteriak? Bertan, jendea miseria gorrian bizi den arren, ez da inondik inora aldarrikapenik egiten. Zertaz mozorrotu behar gara inori minik ez egiteko?

Beraiek nahi dutena kafeinarik gabeko inauteriak dira, argazki politak ateratzeko eta hurrengo egunean denok pozik egoteko

(ahotsik gabe gelditu garenok izan ezik).

Desegitea erakitzea baino askoz errazagoa dela berriro ikusi da. Aurten ehunka konpartsero eta koadrila-kideen lana apurtu dute, eta txarrena dena oraindik, azkeneko 25 urte egin dugun lana ere suntsitu nahian dabilzate. Nobel saridun Camilo Jose Cela gogora ekartzen dute. Zergatik? Bada. ez bere ekoizpen literarioagatik, baizik eta, frankista eta zentsorea izan zelako.





Ez gara majak, majoak baizik!

Badakizueenez, pasa den astean, martxoaren zortzian, arlo guztietako berdintasuna exijitu genuen emakumeok, betikolez, (berdintasuna inoiz lortuko ote dugu?) baina lasai, mutilak, ez garela luzatuko Hau-hauan aipatutako gaiaz. Artikulutxo honetan hizkera sexisten datzan

bereizkeriari buruz hitz egingo dugu, euskarari dagokiona, hain zuzen.

Ziur aski zeuk pentsatzen duzue euskaraz (bihotz-bihotzean daramagun hizkuntza jatorra honetaz), genero gramatikalik ez dagoenez, sexismorako aukerarik ez dela, ezta?

Oker-okera zaudete orduan.

Oro har generoa ez da markatzen, hori bai, baina euskara ez da, hala ere, guk uste bezain neutroa.

Hona hemen adibide batzuk: "Gizon" hitzak sarritan esanahi generikoa du, lanbideak izendatzeko gizon atzizkia (meagizon, legegizon, elizgizon...).

"Giza" errotik sorturiko hitzak kulturari lotuta agertzen zaizkigu (gizalege, gizajende, gizabide).

"Ema" errotik sorturikoak naturari lotuta daude edo emakumeei egozten zaizkien kualitateei: emalege, emetasun, emagarri... Esaterako, konpara itzazue "gizalege" eta "emalege" hitzak...

Eta tamalez, erdararen eraginez, hainbat esamolde arrotz entzuten dugu: "Zenbat seme dituzu?" (Zenbat seme-alaba?); "Eskola honetako mutilak" (Eskola honetako neska-mutilak)...

Askotan, izenondoetan generoa TXARTO markatzen da (erdaraz bezala): maja, aguda, alta... Eta neskak ez gara majak, agudak, altak. Konpartsa honetako neskak majoak, agudoak eta altuak gara, hori bai!

(Informazio hau Amaia Alvarez filologoak aurkeztutako 'Euskara hizkuntza sexista al da?' ponentziatik aterata dizuegu, Prest aldizkariaren 33. zenbakian agertu zen monografikoaren arabera).

Sarean gaude!!!

Hau...Hau-ren aurreko alea gure web orrian eskegi dugu, eta laster ale hau ere sarean egongo da. Beraz, Hau...Hau irakurri nahi baduzue, sartu gure web orrian. Bertan, Hau...Hau aurkitzeaz gain, bestelako gauza interesgarriak ere aurkituko dituzue. Sartu eta ikusi!


www.haupittuhau.org

Gurekin kontaktatu nahi baduzue, hemen daukazue gure helbidea:

haupittuhau@haupittuhau.org




GORA ZIBER HAU PITTU HAU!!!






DEIALDIAK

efia da... nik ikusi dudalako...



Tabur- Taburrak



Kamiseta txikiak behar dira!

Ikusita azkenaldi honetan "tonetti" lar eta ume gutxi daudela, gure Batirtze eta Gabik egoera konpontzen laguntzea erabaki dute. Horrela, konpartsakide berria ekarri dute mundura: Maddi.

Konpartsaren aldetik Zorionik handienak opa nahi dizkizuegu hirurei. Eta zuri, Maddi, Abuztuan MariJaia ezagutzeko zita baduzula gogoratzea!



Dantza ezazue, madarikatu horiek!

Aizue! Bazenekiten Indautxuko Euskaltegian euskal dantza ikastaro erakargarria hasi garela? Aintzane dugu irakasle galanta, pazientzia izugarriarena. A! Eta ez pentsa, albiste labur honen izenburua ez da Aintzanez klasean esaten diguna, Jane Fondak egindako pelikula ospetsuaren izenburua baino...

deialdiak



EUSKARAREN ALDEKO HURRENGO DEIALDIAK

apirilaren 2a: Txotx eguna (Indautxu).
apirilaren 4a: Hizkuntza Eskubideen Eguna
(Lesaka)

maiatzaren 16a: Herri Urrats (Senpere)

maiatzaren 30a: Ibilaldia (Leioa)

ekainaren 6a: Eskola Publikoaren Jaia (Bilbo –
Etxebarria parkea)

ekainaren 20a: Araba Euskaraz (Bastida)

ekainaren bukaeran: Euskal Herria Zuzenean
(Ipar Euskal Herria - ???)